

Karmele Muñoa Arrigainek, Bermeoko Udaleko idazkari akzidentalak, ziurtatzen dot, 2021-11-23(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

9.- KASINOKO LOKALEN ERRENTAMENDUA ESLEITZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA ETA LIZITAZIO-PROZEDURA IREKITZEA.

Xedea

Kasinoko lokalen errentamendua esleitzeko espediente onartzea eta lizitazio-prozedura irekitzea

Aurrekariak

Lehenengoa: Udal honek ondare izaera duten bi lokal ditu Kasinoko eraikinean, eta erabilera zehatza eman nahi zaie, ustiapena optimizatzeko. Horiek horrela, errentamendua esleitzeko deialdia egin behar da, eta horretarako lizitazioaren baldintza agiri administratiboak zein teknikoak prestatu dira.

Bigarrena: 2021eko abuztuaren 25eko datuz, udal aparejadoreak ikuskatze txostena egin du.

Hirugarrena: Errenta Saileko teknikariak txostena eman du, 2021eko irailaren 29an.

Laugarrena: Udal arkitektoak espediente honen xede diren ondasunen balorazioari buruzko txostena igorri du, 2021eko urriaren 29an.

Bosgarrena: 2021eko azaroaren 12ko justifikazio memoria dago espedientean.

Seigarrena: Halaber, espedientean Idazkaritzako AOTren txosten juridikoa dago, 2021eko azaroaren 12koa.

Argudioak

Lehenengoa: Errentamenduaren xede diren lokalak ondare ondasunak dira, ekainaren 23ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenaren 6. artikulua araber, eta Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 76. artikuluaekin bat etorriz.

Bigarrena: Higiezinaren errentamendu kontratua izaera pribatuko negozio juridiko bat



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoa egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E500082D0300P817M5O2O7J9

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 24/11/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/11/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/11/2021
18:12:44

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0193
Data: 16/08/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



da, ondare legeriak arautzen duena, eta Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen aplikazio eremutik kanpo dagoena 9.2 artikuluan ezarritakoarekin bat: *“quedan, asimismo, excluidos de la presente Ley los contratos de compraventa, donación, permuta, arrendamiento y demás negocios jurídicos análogos sobre bienes inmuebles, valores negociables y propiedades incorporales, a no ser que recaigan sobre programas de ordenador y deban ser calificados como contratos de suministro o servicios, que tendrán siempre el carácter de contratos privados y se registrarán por la legislación patrimonial (...).”*

Horiek horrela, prestakuntza- eta esleipen-egintzak azaroaren 3ko 33/2003 Legean ezarritakoaren arabera arautuko dira, toki-erakundeei osagarri gisa aplikatzen baitzaie, eta, beste arau berezirik izan ezean, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legea aplikatuko da osagarri gisa. Horren ildotik, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 4. artikulua hitzez hitz hurrengoa dio: *“las relaciones jurídicas, negocios y contratos citados en esta sección quedan excluidos del ámbito de la presente Ley, y se registrarán por sus normas especiales, aplicándose los principios de esta Ley para resolver las dudas y lagunas que pudieran presentarse.”*

Hirugarrena: Ondorioei eta azkentzeari dagokienez, zuzenbide pribatuko arauak izango dira aplikagarriak, bereziki Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legea. Hala, lege horren 4. artikulua hurrengoa dio: *“sin perjuicio de lo dispuesto en el apartado 1, los arrendamientos para uso distinto del de vivienda se rigen por la voluntad de las partes, en su defecto, por lo dispuesto en el título III de la presente ley y, supletoriamente, por lo dispuesto en el Código Civil.”*

Laugarrena: 33/2003 Legearen 107.1 artikulua ezartzen duenez, ondare ondasunen gaineko errendamenduak lehiaketa bidez emango dira: *“los contratos para la explotación de los bienes y derechos patrimoniales se adjudicarán por concurso salvo que, por las peculiaridades del bien, la limitación de la demanda, la urgencia resultante de acontecimientos imprevistos o la singularidad de la operación, proceda la adjudicación directa.”*

Bosgarrena: Espediente honen xede diren errentamenduak ez ditu udalak finantzatuko, aitzitik, errentariek ordaindu beharreko errentaren mende daude.

Seigarrena: Errentamenduaren baldintza agiriak eta esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio, oinarrizko aurrekontua ez baita egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa. Hala ere, 2021eko martxoaren 11ko 702 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, eskumen hori Tokiko Gobernu Batzarrarengan eskuordetu da.

Erabakia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E500082D0300P817M5O2O7J9

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑOA ARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 24/11/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/11/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/11/2021
18:12:44

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0193
Data: 16/08/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:

LEHENENGOA: Kasinoko lokalen errentamendua esleitzeko espedientea, Administrazio Baldintza Agiriak zein Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea, eta lizitazio-prozedura irekitzea, lehiaketa bidez esleitzeko, 33/2003 Legearen 107.1 artikuluaekin bat etorriz.

BIGARRENA: Ondare ondasunen gaineko errentamenduak esleitzeko deia egitea. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Eskaintzak aurkezteko epea 20 lanegunekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA: Erabaki hau Idazkaritza sailari, Ekonomia sailari eta ATBri helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen dagozkion ondorioetarako.

LAUGARRENA: Hurrengo O soko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orrri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E500082D0300P817M5O2O7J9

Sinadurea eta data

MIREN KARMELE MUÑO AARRIGAIN-IDAZKARI AKZIDENTALA - 24/11/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 24/11/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/11/2021
18:12:44

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0193
Data: 16/08/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07E500082D0300P817M5O2O7J9

